



PRENTSARAKO OHARRA

## 2020KO BIZKAIKO AURREKONTUA ONETSI DA BATZAR NAGUSIEN OSOKOAN

- **Bizkaiak 8.444,3 milioi euro izango ditu datorren urtean. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak aurrekontu proiektuaren alde agertu dira, euren 33 botoakaz, eta EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia eta Talde Berezia / PP Bizkaia, barriz, kontra.**

*(Bilbon, 2019ko abenduaren 27an).*- Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokoak lurralde historikoaren 2020rako aurrekontua onetsi dau gaur goizean Gernikako Batzarretxean. Bizkaiaren esku 8.444,3 milioi euro –horreetatik 1.286,6 milioi Foru Sailen esku egongo dira– jarriko dituen kontuak, gobernua osatzen daberen taldeen (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) aldeko 33 botoei esker onetsi dira. EH Bilduk, Elkarrekin Bizkaiak eta Talde Bereziak / PP Bizkaiak, kontrako botoa emon dabe, eta guztien artean 17 boto batu ditue.

2020rako aurrekontua ezelango aldaketa barik onartu da. Oposizinoko hiru taldeek aurkeztu ebezan osotasunaren aurreko zuzenketa-eskeak ez ziran onartu joan dan abenduaren 11n egin zan Osokoan. Horren ostean, abenduaren 16tik 18ra, Ogasun eta Finantzetako Batzordearen bederatzi saiotan, ez ziran onartu EH Bilduk, Elkarrekin Bizkaiak eta Talde Bereziak / PP Bizkaiak aurkeztutako 600etik gorako zuzenketa-eske parzialak.

Hiru talde horreek gaurko osoko saiorako erreserbau ebezan euren zuzenketa-eskeak, baina gaur be, Bizkaiko Foru Batzarretan gehiengo zabala daukien Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek atzera bota ditue.

Euzko Abertzaleak taldearen izenean, Mikel Baganek adierazo dauenez, 2020rako aurrekontuen helburua “Bizkaia hobea” lortzea da, eta “ekimenak gehituko eta aukerak zabalduko dituan proposamenak baino gehiago ildo ideologikoak diralako” ez dirala zuzenketa-eske bakar baten alde agertu azaldu dau.

Jarlekuetatik, Ekain Rico Euskal Sozialistak taldearen bozeroaleak defendidu dauenez, aurrekontuek “erantzun zehatzak emoten deutseez Bizkaiko herritarrek egunero aurrean dituen arazo zehatzei”, eta aurkeztutako zuzenketa-eske parzialek ez dakarre ezelango “barrikuntzarik”.

Arantza Urkaregik (EH Bildu) esan dauenez, EAJ-PNVren eta PSEren “konformismoagaz” eta “arraboleagaz”, “Bizkaian egoera okerreanean dagozan personek galtzen dabe”. Urkaregik azpimarratu dauenez “gauza barria” da zuzenketa-eske bakarra be onartu ez izana. “Agintaldia txarto hasi da”, adierazo dau.

Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak Aldundiko karguen soldata igoera kritikau dau. "Alderdien interesak herritarren interesen ganetik jarten ditue", adierazo dau De Madariagak, zuzenketa-eske bakarra onartu ez izana kritikau ostean.

Amaya Fernándezek (Talde Berezia / PP Bizkaia), Aurrekontu Proiektuan enpleoaren eta herritarren arduren aldeko apustu faltea aurpegiratu deutse. Bere eretziz, aurrekontuak "gehiago zentretan dira Gobernuaren interesetan personen interesetan baino".

2020ko Aurrekontu Proiektua joan dan urriaren 31n erregistraua zanetik egon da Batzarretako tramitazioan. Tramitazio horretan, herritarrek alegazioak eta aldaketa eskariak aurkeztu ahal izan ditue, eta arauzko fase guztiak gainditu ostean, gaur amaitu da, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen aldeko eretxiagaz.



NOTA DE PRENSA

## **APROBADO EL PRESUPUESTO PARA BIZKAIA EN 2020 EN EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES**

- **Bizkaia contará con 8444,3 millones de euros el próximo año. Los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han respaldado el proyecto presupuestario con sus 33 votos, mientras EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia han votado en contra.**

*(Gernika, a 27 de diciembre de 2019).*- El Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy en la Casa de Juntas de Gernika el presupuesto del territorio histórico para 2020. Las cuentas -que dotarán a Bizkaia de 8.444,3 millones de euros, de los que 1.286,6 millones corresponden a los departamentos forales- han salido adelante con los 33 votos de los grupos del equipo de gobierno (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos). EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia han votado en contra, sumando un total de 17 votos.

El presupuesto para 2020 ha sido respaldado sin modificación alguna. Los tres grupos de la oposición presentaron enmiendas a la totalidad que fueron rechazadas en el Pleno celebrado el pasado 11 de diciembre. Posteriormente, del 16 al 18 de diciembre en nueve sesiones de la Comisión de Hacienda y Finanzas se desestimaron las más de 600 enmiendas parciales presentadas por EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y Grupo Mixto / PP Bizkaia.

Estos tres grupos se reservaron las enmiendas para la sesión plenaria de hoy en la que han vuelto a ser rechazadas por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, que cuentan con una amplia mayoría en la Cámara Foral de Bizkaia.

En nombre de Nacionalistas Vascos, Mikel Bagan ha asegurado que el objetivo de los presupuestos para 2020 es “una Bizkaia mejor” y ha explicado que no han apoyado ninguna enmienda porque “son más unas líneas ideológicas que una propuesta que sume iniciativas y abra oportunidades”.

También desde la tribuna, Ekain Rico, portavoz de Socialistas Vascos, ha defendido que los presupuestos “ofrecen respuestas concretas a los problemas concretos a los que se enfrenta día a día la ciudadanía de Bizkaia” y que las enmiendas parciales presentadas no aportan ninguna “novedad”.

Arantza Urkaregi (EH Bildu) ha asegurado que con “el conformismo” y “el rodillo” de PNV y PSE “pierden las personas que están en una situación más vulnerable en Bizkaia”. Urkaregi ha remarcado que es “una novedad” que no se haya aprobado ninguna enmienda. “La legislatura empieza mal”, ha declarado.

La portavoz de Elkarrekin Bizkaia Eneritz de Madariaga ha criticado el aumento de los sueldos de los cargos forales. “Anteponen los intereses partidistas a los de la ciudadanía”, ha asegurado De Madariaga tras criticar que se hayan rechazado todas las enmiendas.

Amaya Fernández (Grupo Mixto / PP Bizkaia) ha reprochado la falta de apuesta por el empleo y por las preocupaciones de la ciudadanía en el Proyecto de Presupuestos que, en su opinión, “está más pendiente de los intereses del Gobierno que de los de las personas”.

El Proyecto de Presupuestos 2020 ha estado en trámite parlamentario en las Juntas Generales de Bizkaia desde su registro el pasado 31 de octubre. Una tramitación que ha permitido en primer lugar presentar alegaciones y modificaciones a la ciudadanía y que, tras pasar por todas las fases reglamentarias, ha terminado hoy con el respaldo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos.